

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HARRI NATURALEKO ELEMENTUEN ETA MULTZOEN PROPOSAMENA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF0742		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harri naturala		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Harri naturaleko elementuen eta multzoen diseinua	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Harri naturaleko proiektuen interpretazioa (zeharkakoa)	Iraupena	60
	Harri naturaleko elementuen diseinuaren irudikapen grafikoa		30

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0865\_3 HARRI NATURALEKO ELEMENTUAK ETA MULTZOAK DISEINATZEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Diseinuko eta irudikapen grafikoko teknikak aplikatzea harri naturaleko elementu bat edo multzo bat definitzeko edo aldatzeko proiektu bat, eredu erreala edo argibide eta jarraibide orokorrak oinarri hartuta.

EI1.1 Materialen eta produktuen katalogoak eta datu teknikoak erabiltzea eta interpretatzea harri naturaleko produktuen diseinuan eta definizioan aplika daitekeen informazioa lortzeko.

EI1.2 Harri naturaleko elementuen eta multzoen diseinuaren eremuan berrikuntza-faktoreak identifikatzea (merkatu-azterketak, produktu berriak, diseinu berriak, merkatu-lerro berriak, aplikazio berriak), harri naturaleko produktu eta zerbitzu berriei dagokienez eguneratuta egoteko beti.

EI1.3 Krokis eta zirriborroen bitartez oinarrizko eredu baten edo aurreproiektu baten alde aurreko ideiak edo bertsioak, egokitzapenak eta aldaketak definitzea eta garatzea, baita pieza edo multzo bat zehazten duten alderdi guztiak ere, betiere horiek guztiak balioestea, aztertzea eta gerora garatzea ahalbidetuko duen definizio-mailarekin garatuta.

EI1.4 Fabrikazioan arazoak eragin ditzaketen eta alde aurretik kontuan izan behar diren puntu kritikoak identifikatzea, lehengaiaren eta eskura dagoen makineriaren arabera (dimentsioak eta gutxieneko eta gehieneko pisuak, akaberak eta mekanizazio posibleak).

EI1.5 Enbalajea eta garraioa arazoak eragin ditzaketen eta alde aurretik kontuan izan behar diren puntu kritikoak identifikatzea, hala nola dimentsioak, forma, pisuak eta hauskortasuna.

EI1.6 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean, jartze-lanetan arazoak eragiten ditzaketen eta alde aurretik kontuan izan behar diren puntu kritikoak identifikatzea:

- Jartzeko metodoa eta sistema (ainguraketak, morteroak, itsasgarriak, hezurren erara eta bestelakoak).
- Jarri beharreko elementuen dimentsioak, pisuak, forma, hauskortasuna.
- Proiektuan zehaztu gabeko guneak: elkarguneak, egiturazko junturak eta dilatazio-junturak, perdoiak, euskarriak eta ainguraketa-guneak.
- Harri naturalaren tratamenduak eta mantentze-lanak.

EI1.7 Behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean alde aurreko ideia bat eskaintzen da, edo aurreproiektu baten edo aurretiazko eredu erreala baten bertsioak edo aldaketak egitea eskatzen da; harri naturaleko produktuaren definizio-prozesua zehaztu behar da, fase guztiak modu sekuentziaz hartuta konponbide bakarrera iritsi arte, eta erreferentzia moduan balio izan behar du proiektuaren bideragarritasun tekniko eta eraikuntza-bideragarritasuna aztertzeko:

- Material egokiena hautatzea, ezarritako eskakizun estetiko-funtzionalak betetzen dituela.
- Harri naturaleko elementuaren edo multzoaren forma eta dimentsioak ezartzea.
- Harri naturaleko elementuaren edo multzoaren akabera eta behin betiko itxura ezartzea.
- Zirriborroak eta krokisak egitea, irudikapen grafikoko metodo konbentzionalak aplikatuta eta zehaztea, aztertzea eta hautatzea ahalbidetuko duen xehetasun-maila nahikoarekin.
- Produktuaren definizioan funtzionaltasunaren, estetikaren, iraunkortasunaren, ekonomiaren eta proiektuak zehaztutako bestelako irizpideak aplikatzea.
- Diseinua teknikoki bideragarria dela egiaztatzea, fabrikazio-aukerei, obran jartzeari eta jartze-lanei dagokienez.
- Zati grafikoa idatzizkoarekin osatzea.
- Ezarritako eskakizunak betetzen dituzten hainbat konponbide proposatzea.
- Ezarritako eskakizunak betetzen dituzten eraikuntza-konponbideak aldatzea eta aztertzea, eta konponbide bakarra proposatzea, hartutako erabakia justifikatuta.
- Erabakitako konponbidea behar bezala definitzea beharrezkoa den informazio tekniko osagarria erabilita.

## Edukiak:

### 1. Harri naturaleko proiektuak.

- Ideia garatzeko prozesua. Eskakizunak eta baldintzatzaileak: formari, teknikari, estetikari, funtzionaltasunari eta teknologiarri dagokienez.
- Proiektu baten faseak, definizio-maila.
- Harri naturaleko proiektuaren dokumentuak:
  - Prozedurak, teknikak, hizkuntzak eta metodologiak.
  - Egitura eta edukia. Deskribapen-memoria.
- Memoria teknikoa idaztea eta lantzea.
- Datuak biltzeko informazioa: baliagarritasuna, lortzeko kanalak.
- Proiektuaren osagarri eta eranskin modura bildutako informazioa eta dokumentuak:
  - Katalogoak, Materialen laginak,
  - Argazkiak,
  - Maketak eta prototipoak.
- Aurkezpena eta konposizioa. Koadernaketa.
- Etxegintza-proiektuak.
- Obra zibileko proiektuak.
- Dekorazioko eta ornamentazioko proiektuak.
- Etxegintzako, obra zibileko, dekorazioko edo ornamentazioko proiektuetan parte hartzen duten agenteak. Esleipenak eta erantzukizunak.
- Fabrikazioko, garraioko eta jartzeko prozesuetan parte hartzen duten agenteak. Esleipenak eta erantzukizunak.
- Eragileen arteko harremanak.

### 2. Harri naturaleko diseinua eta eraikuntza-konponbideak.

- Diseinuaren garrantzia eta eragina harri naturaleko elementuen produkzioan.
- Diseinuaren helburuak. Sortzea. Produktuaren definizioa.
- Harri naturaleko diseinuak egiteko metodoak: Konbentzionala. Informatizatua.
- Baliabideak eta materialak.
- Diseinuaren alderdiak. Forma-funtzioa. Irizpide estetikoak eta funtzionalak.
- Produktuaren osaera:
  - Materialak. Akaberak.
  - Informazio dimentsionala eta estetikoa.
  - Xehetasun teknikoak eta estetikoak.
- Diseinu edo produktu orijinalen aldaketa.
- Eraikuntza-konponbideak:
  - Konponbideen alderaketa eta azterketa.
  - Azterketa-prozedurak.
  - Aintzat hartu beharreko faktoreak eta parametroak.
  - Erabakiak hartzeko irizpideak. Proiektuaren ebazpena.
- Harri naturaleko produktuen katalogoak. Erabilera eta interpretazioa.
- Berrikuntzako eta kalitatezko irizpideak. Harri naturaleko produktu eta zerbitzu berriak.
- Merkatuari buruzko informazioa. Motak. Iturriak.

## C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-egagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0741 Harri naturaleko proiektuen interpretazioa.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harri naturaleko proiektuen diseinua eta koordinazioa.